



DIAGNOSTIKORAKO POLISOMNOGRAFIA ETA LOALDIAREN LATENTZIA ANITZEKO TESTA (LLAT) HAUR ETA NERABEETAN

ZER DA POLISOMNOGRAFIA ETA BIHARAMUNEKO LLAT-A?

Proba honek loaldian arnasketa eta garunaren eta giharren jarduera neurtzeko aukera ematen digu, zure loaren kalitatea eta kantitatea baloratzeko. Proba konplexua da eta, ondorioz, ospitalean egin behar da. Zuen semeari edo alabari dagokionez, LLAT proba batekin egingo da. Hau da, polisomnografia egin eta biharamun goizean 20 minutuko 4-5 siesta egingo ditu 2 orduko tartetan. Test horren helburua da loa objektiboki neurtzea. Beraz, zuen semeak edo alabak gau bat eta hurrengo goiza igaroko ditu ospitalean. Proba hurrengo eguneko 15:00etan ala 17:00etan bukatuko da, garapena zein den.

Probaren helburua da zuen semeak edo alabak loaren nahasteren bat ote duen baloratzea, zer larritasun duen zehaztea eta, behar izanez gero, tratamendua jartzea.

NOLA PRESTATU BEHAR DA HAURRA PROBARAKO?

Probaren egunean haurrak eguneroko bizimodua egin behar du. Umeak Unitatera 21:00 aldera etorri beharko du, afalduta. Haurrak medikazioaren bat hartzen badu, ekarri beharko du eta erizainari jakinarazi beharko dio guk eman ahal izateko. Beste horrenbeste beharizan dietetiko bereziren bat izanez gero.

Komenigarria da burua garbituta etortzea. Haurrak etxetik kanpo gau bat lo egitera joan behar duenean bezala prestatu behar dute gurasoek dena (pijama, garbiketarako poltsatxoak, etab.). Egokitzea errazteko, gurasoek edo senitartekoek (gehienez ere bi) baimena dute probaren hasieran egoteko. Baina behin proba hasita, pertsona bakar bat egon ahal izango da gau osoan haurrarekin.

NON ETA NOLA EGINGO DIDATE PROBA?

Gurasoek umearekin joan behar dute **LOAREN UNITATE**ra, **Santiago egoitzako B pabiloiko 2. solairura**, aurretik adierazi dizuten orduan. Itxarongelan egon behar duzu, artatua izan arte.

Haurrak banakako gela lasai eta isil batean egingo du lo, eta ohe artikulatu batean. Gurasoek ohearen urrutiko kontrola izango dute eta haurra eroso egon dadin ohea goratzeko edo beheratzeko aukera izango dute. Buruan, toraxean, sabelaldean eta zangoetan kable batzuk jarriko dizkiogu aparatu batzuei konektatuta. Aparatu horiek loaren kantitatea eta kalitatea jasoko dute eta aukera emango diete medikuei gaixotasuna diagnostikatzeko eta tratatzeko. Telebista-kamera batzuk piztuta izango dira probak dirauen bitartean; kamera horiek ziurtatuko digute haurra une oro zainduta dagoela. Gau osoan erizain espezializatu batek gainbegiratu eta zainduko du haurra. Gurasoek aukera izango dute erizainarekin hitz egiteko edozein unetan.

Proba biharamuneko 17:30 aldera amaituko da. Haurrak Loaren Unitatean gosalduta eta bazkalduta egingo du. Proba amaitzen denean, gurasoek egiaztasun bat behar badute, irteeran eskatu beharko dute Harrera Zerbitzuan, ate nagusian.

Probak ez du arriskurik, ez du minik sortzen eta deserosotasuna oso txikia da; soilik etxetik kanpo kable batzuk jarrita lo egin beharrik sortzen duena.

NON JASOKO DITUT PROBAREN EMAITZAK?

Loaren azterketa egitera zatorzen gauean, kontsultarako hitzordua finkatzeko orri bat emango zaizue. Kontsulta horretan, mediku espezialista batek txostena eman eta probaren emaitzak azalduko dizkizue eta tratamendua adieraziko dizue behar izanez gero. Gomendagarria da emaitzen kontsultara haurrarekin batera joatea.